



IRAUNKORTASUNA EGUNEROKO BIZITZAN

HONDAKINAK, ENERGIA, URA, KONTSUMO ARDURATSUA ETA MUGIKORTASUNA

HONDAKINAK

- ❖ Lehenengo pausua, hondakin sorrera MURRIZTEA da. Saihestu erabili eta botatzeko produktuak eta ontzi gehiegi dituzten produktuak.
- ❖ Tresna elektrikoaren eta arroparen kasuan, saiatu konpontzen bota baino lehen. Bestela, eman edo oparitu, KOOPERA ontzi zurietan, adibidez.
- ❖ Berrerabili ahalik eta gehien dendetako plastikozko poltsak, botilak...
- ❖ Hondakinak tipologiaren arabera bereiztu, eta era aproposan utzi dagokien hondakin-ontzietan.

Murriztu, Berrerabili eta Birziklatu!

Hondakin onena, sortzen ez dena.



Aprobetxatu argi naturala eta amatatu argiak behar ez dituzunean. Argiaren gastua etxeko energia kontsumoaren % 20 izan daiteke!

ENERGIA

- ❖ Ordezkatu pixkanaka bonbilla halogenoak eta bonbilla goriak, kontsumo baxuko bonbillengatik (LED).
- ❖ Erreparatu erosten dituzun etxetresna elektrikoaren maila energetikoan.
- ❖ Garbiketa egiteko, erabili ur hotza. Ur beroko garbiketarekin konparatuz, % 80-90 aurreztea dakar.
- ❖ Mantendu etxeko tenperatura 19-21 °C tartean neguan, eta 25°C-tan udan. Gehiegizko gradu bakoitzak % 7ko gastu gehigarria dakar.

URA

- ❖ Murriztu ur kontsumoa, adibidez, komunean deskarga bikoitzeko sistema jarritz eta dutxan fluxu erregulatzailea jarritz.
- ❖ Bainatu beharrean, dutxatu zaitetze, eta kontrolatu ur azpian ematen duzun denbora.
- ❖ Hortzak garbitzerakoan, itxi txorrota ura behar ez duzunean.
- ❖ Etxetresna elektrikoaren efizientzia etiketek ere ur kontsumoa adierazten dute.

Ura baliabide eskasa da. Aurreztu ura egunero, txorrota itxiz beharrezkoa ez denean eta dutxa laburrak hartuz.



KONTSUMO ARDURATSUA



- ❖ Erosketak udalerrian egin. Tokiko erosketak udalerria bizirik mantentzen laguntzen du, eta, gainera, bertako produktuak aurkituko dituzu.
- ❖ Aukeratu bertako produktuak (0 km); izan ere, tokiko ekonomian lagunduko duzu eta garraiotik datozen emisioak saihestuko dituzu.

Erosi betan eta bertako produktuak eta burua erabiliz. Produktu hori behar al duzu?

Zeozer bota baino lehen, saiatu konpontzen, bestela... eman!


❖ Erosi sasoiko produktuak, barazkiak, lekaleak eta arraina, bereziki.

❖ Ez bota zakarrontzira arropa, liburuak edota tresna elektronikoak, eman ezagunen bati edota utzi KOOPERA ontzi zurietan (Sestaon 7 ditugu). Egoera txarrean badago ere, balioa izan dezake, birziklatu daiteke eta.

MUGIKORTASUNA

- ❖ Ahal bada, mugitu oinez edo bizikletaz, sasoiari mantenduko zara eta ingurumena errespetatuko duzu.
- ❖ Distantzia ertain eta luzeak egiteko, erabili garraio publikoa.
- ❖ Autoa erabili behar baduzu, partekatu.

Ahal duzun guztietan, mugitu oinez edo bizikletaz, bestela aukeratu garraio publikoa!



Txertatu ekintza hauek zure eguneroko bizitzan, zaindu zure ingurua eta jokatu modu arduratsuan ingurumenarekin eta besteekin.

Harremanetarako: agendalocal21@sestao.eus

